

**APIRILAREN 28A**

**LANEKO SEGURTASUNAREN ETA  
OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA  
MUTULITATEEI BURUZKO LEGEA...  
LANEKO OSASUNAREN PRIBATIZAZIOAREN  
BERMEA**

**Gobernuak eta patronalek bermatzen dute soldatapekoen osasuna suntsituko dela**

**Prebentzioa, mediku-azterketak eta asistentzia orain funts putreen esku daude**

**Berriz ere hiritar oroaren lan-eskubideak murrizten ari dira**

**Langileek beren historia klinikoa konfidentziala izateko duten eskubidea urratzen du**

**Gaixotasunagatiko prestazioen kudeaketa pribatizatzen du**

**CEOE**

## **Patronalen mutualitateei buruzko Legea, langileen osasunaren aurkako suntsipen handiko arma, abian da 2015eko urtarrilaren 1az geroztik.**

PPren gobernuak, langileen eskubideen aurkari nagusi izanik, beste behin agerian utzi du erabat gutxiesten duela funtsezko bizi-eskubideetariko bat: osasuna; kasu honetan, lan-osasuna. Izan ere, lan-osasuna luxuzko artikulua bihurtzen dute eta, ondorioz, goi-mailako klaseen eta ahaltsuen esku geratzen da soilik (enpresariak, politikariak, exekutiboak, zuzendariak).

Legeak hiru printzipio ditu oinarri, guztiak ere osasuna bermatzeko printzipioaren aurkakoak:

**Lehena:** Gaixo dauden langileak delitugiletzat hartzen ditu, susmoa da beti iruzur egiten ari direla, lan egiteko betebeharrari ihes egin nahirik dabilzala.

Beraz, ikusmolde hori oinarri hartuta, patronalen mutualitateek kudeatzen dituzte baja guztiak, laneko istripuaren edo gaixotasunaren ondorio izan edo kontingentzia komunengatikoaldi baterako ezintasuna izan. Zeregina da **zelatatzea eta zigortzea**.

**Bigarrena:** Osasun-sistema publikoa eta lanpostua merezimenduak eta gaitasuna baloratzen dituen lehiaketa publiko bidez eskuratzen duten medikuak zalantzan jartzen dituzte profesionalki eta medikoki, eta merkatu pribatuaren esku (medikuntza pribatua) uzten dute langilea gaixo dagoen edo ez dagoen zehazteko gaitasuna; merkatu-irizpideak (errentagarritasuna, produktibitatea) gailenduko zaizkio osasunaren errealitateari.

Enpresa guztiak behartuta daude mutualitate baten zerbitzuak kontratatzerara eta langile bakoitzaren soldataren portzentaje bat Gizarte Segurantzaren Altxortegian sartu behar dute. Beraz, ekarpen horiek enpresak egiten baditu, ez dugu ahaztu behar da soldatapekoen lan-errentak direla. Nagusiek istripu bat edo gaixotasun profesional bat eragiten digutenean, mutualitatea behartuta dago sendatzeko prozesuaren gastu guztiak ordaintzera eta, ondorioz, zenbat eta laburragoa izan sendatzeko denbora, zenbat eta baliabide gutxiago erabili behar izan (probak, kontsultak, terapiak, etab.), zenbat eta heriotza gutxiago izan gaixotasun profesionalen ondorioz, orduan eta etekin handiagoa aterako du mutualitateak. Eta zer lotura du horrek osasuna bermatzearekin? Ez du loturarik, ez du inolako loturarik.

**Hirugarrena:** Laneko osasunaren pribatizazioa arrisku-kapitalen arloko erraldoien esku (funtz putreak) uzten dute eta horiek prebentzio-sozietateen merkatua bereganatzen dute. Adibidez, IDC Saludek (Iehen Capio) CVC arrisku-kapitaleko fondoak kontrolatzen ditu, "prebentzio-merkatu" guztiaren % 30 baino gehiago hartzen du, 300 milioi euro inguru fakturatzen ditu, 154.000 enpresa-bezero baino gehiago ditu eta 4,5 milioi langileren "osasuna" kontrolatzen eta zelatatzen du.

CGT "langileen osasunaren aurkako suntsipen handiko armei buruzko lege" honen aurka dago eta halaxe adieraziko du kalean eta osasun-sarean, eta guztiontzako OSASUN-SISTEMA PUBLIKO, UNIBERTSAL ETA NAHIKOAREN alde borrokatzen du eta borrokatuko du.



**LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA**

[www.cgt-lkn.org](http://www.cgt-lkn.org)

[www.rojoynegro.info](http://www.rojoynegro.info)